

Museoak igarobidean

Objektutik
subjektu aktibora

Museos en tránsito

Del objeto
al sujeto activo



SAIO
IREKIA
SESIÓN
ABIERTA

03

Edizioa Edición:
K6 Gestión Cultural

Testuak Textos:
Magda Polo Pujadas
Carles Sora-Domenjó
Clara Harguindey Cáceres &
Daniel Pecharromán Calvo
Oskia Ugarte
Laura Arensburg
Maushaus

Diseinua Diseño:
Bisai Studio

© Testuak Textos:
Egileak. Autoras y autores.
© Edizioa Edición:
K6 Gestión Cultural SL, 2022

ISBN: 978-84-09-47235-2
ISBNebook: 978-84-09-47422-6
Lege Gordailua Depósito Legal:
D-1391-2022



**SAIO
IREKIA**
SESIÓN
ABIERTA

Koaderno hau, 2022ko azaroan, *Museoak igarobidean: Objektutik subjektu aktibora* izenburupean, ospatutako Saio Irekiaren 9. edizioaren ondorio da. Bertan landutako ideiei eta gaiiei testuingurua ematen dien eta kultur praktika kritikoak eta sozialak garatzeko aukera berriak proposatzen eta partekatzen dituen hausnarketa-gune gisa balio du.

Hemen biltzen ditugun egileen idatziek, Museoek bahiz bestelako kultur-espazioek parte-hartze irekiagoak eskaintzen dituzten eredu iragazkorragoetara igarotzeko landu behar dituzten prozesuei buruz gogoeta egitera gonbidatzen gaituzte, diziplinartekotasunari eta dimentsio digitalaren pixkanakako asimilazioari garrantzi berezia eskainiz. Norabide horrek kultur-erakundea etengabeko eraldatze eta hausnarketa leku batean jarri nahi du, besteak beste, gero eta askotarikoagoa den gizartearekin ezartzen dituen harremanetan sakondu asmoz.

Este cuaderno surge en el marco de la 9a edición de las jornadas Sesión Abierta, celebradas en noviembre de 2022 bajo el título *Museos en tránsito. Del objeto al sujeto activo*. Actúa como un espacio de reflexión que aporta contexto a las ideas y temáticas abordadas y a la vez, propone y comparte nuevas posibilidades para el desarrollo de una práctica cultural crítica y social.

Los textos de las autoras y autores invitan a reflexionar sobre la transición de los museos y otros espacios de la cultura hacia modelos más permeables, abiertos a la participación, donde la interdisciplinariedad y la progresiva asimilación de la dimensión digital, adoptan un peso relevante. Una dirección que necesariamente sitúa a la institución cultural en continua transformación y reflexión sobre, entre otros aspectos, la relación que establece con una sociedad cada vez más diversa.

Museoak igarobidean

**Objektutik
subjektu aktibora**

Museos en tránsito

Del objeto
al sujeto activo

01

Estetika, diziplinartekotasuna eta interakzioa Museoetan

Estética, interdisciplinariedad e interacción en los Museos

Dra. Magda Polo Pujadas

08

02

Museoa Metabertsorantz?

¿El museo hacia el Metaverso?

Dr. Carles Sora-Domenjó

18

03

Wunderkammeretik metabertsora. Museoa eta Internet trantsizioko paradigma gisa.

De la wunderkammer al metaverso. Museo e Internet como paradigmas en transición.

Clara Harguindey Cáceres & Daniel Pecharromán Calvo (Desmusea)

28

04

Har-eman

Oskia Ugarte

38

05

Zentzumenen bitartekaritza: Gorputzen eta museoen inguruneen arteko harremanak.

Mediación sensorial: Relaciones entre cuerpos y entornos museísticos.

Laura Arensburg

46

06

Pozaren eskubidea.

El derecho a la alegría.

Maushaus

58

01

Estetika, diziplinartekotasuna eta interakzioa Museoetan

Estética,
interdisciplinariedad
e interacción en
los Museos

Dra. Magda Polo Pujadas

Bartzelonako Unibertsitatea.
Universidad de Barcelona.

Umberto Eco nabarmendu zuenez *Revista de Occidente* aldizkarian argitaratutako “El Museo en el tercer milenio”¹ izeneko artikuluan, behar bat sentitzen zuen museoetatik beti sorpresa berriak jasotzeko. Harridurak, zenbaitetan gudan biziki pizten dituen miresmen edo txundidura eragile horrek, museo batek barrutik zein kanpotik hartzen dituen ekintzetako asko gidatu egin beharko lituzke.

Museo baten diziplinartekotasunak — bai barruan bai kanpoan aplika daitezkeenak — balio holistiko bat ematen digu, beharrezkoa duguna “ikusgai” jarritakoa “osotasun” baten, “ingurune” baten, “sare” baten parte dela ulertzeko; honek alderdi jakin batzuk astintzen ditu, erakutsitako edo ezagutzera emandako objektuak edo esperientziak kasu bakaretan biltzen dituenak. Barrualdean, eztaba da museo bateko saillek —errestaurazioa, kontserbazioa, erregistroa, ikerketa, hedapena eta abar— harreman estuan egon behar dutela erakusketan koherentzia bat lortzeko, eta politika instituzional publiko edo pribatu irisgarri —terminoaren zentzurik

Umberto Eco, en un artículo publicado en la *Revista de Occidente* titulado “El Museo en el tercer milenio”,¹ hacía hincapié en la necesidad de que los museos le ofrecieran siempre nuevas sorpresas. El asombro, esa causa de admiración o extrañeza que a veces nos invade, debería guiar muchas de las acciones que habitan un museo, por dentro y por fuera.

La interdisciplinariedad en un museo, tanto la que puede aplicarse de manera interna como la externa, nos aporta un valor holístico necesario a la hora de entender “lo expuesto” como formando parte de “un todo”, de “un entorno”, de “una red” que atiza aspectos que el objeto o experiencia que se muestran o dan a conocer escasamente contiene. En el ámbito interno es incuestionable que los distintos departamentos de un museo (restauración, conservación, registro, investigación, difusión, etc.) deben estar íntimamente en contacto para conseguir una coherencia expositiva y una política institucional pública o privada accesible (en el más

zabalenean— eta aberasgarri bat erdies-teko. Hortaz, *curator* edo komisarioek, edo proiektuen arduradunek, ziurtatu egin beharko lukete diziplinen uztartzea² balio erantsi bat dela publikoari edo bisitariari zuzendutako diskurtso arinago eta atseginoago bat ezartzeko orduan. Diziplinartekotasunak aukera ugari zabaltzen dizkigu eta abagune bat eskaintzen digu, gaur egun, galdu behar ez duguna; aurrena, errealitate konplexu honek erakutsi egiten digulako aldaketa askok berealdiko garrantzia dutela eta, hurrena, publiko gaztea, gehienbat, delako museoen inguruko proiektu berrietan inplikaturik sentitu behar duena.

Diziplinartekotasunaren esperientziak era guztietako diskurtsoak, metodoak, materialak eta baliabideak gurutzatzen ditu. Hala ere, garrantzikoena zera da, aldi berean ahalbidetzen duela esperientzia artistikoz eta estetikoaz gozatzea. Esperientzia artistikoa — zuzenean izaten dena ekintza artistikoa sortuta edo ekintza horretan parte izanda—

amplio sentido del término) y enriquecedora. Por otro lado, los comisarios o *curators*, los responsables de los proyectos deberían cerciorarse de que la fusión de disciplinas² constituye un valor añadido a la hora de establecer un discurso más fluido y ameno hacia el público o el visitante. La interdisciplinariedad nos abre un gran abanico de posibilidades y nos brinda una oportunidad que, actualmente, no debemos dejar pasar; en primer lugar, porque la realidad compleja nos constata que son cruciales muchos cambios y, en segundo lugar, porque el público joven, mayoritariamente, es el que debe sentirse implicado en los nuevos proyectos museísticos.

La experiencia interdisciplinar cruza discursos, métodos, materiales y recursos de todo tipo, pero lo más importante es que posibilita el goce de la experiencia artística y estética simultáneamente. La experiencia artística, la que se vive en primera persona creando y par-

¹ Eco, Umberto (2005). “El Museo en el tercer milenio.” *Revista de Occidente*, 290-291 zk., 40-41. or.

¹ Eco, Umberto (2005). “El Museo en el tercer milenio.” *Revista de Occidente*, n. 290-291, p. 40-41.

² Ikus Polo Pujadas, Magda (2021). “La interdisciplinariedad y los museos en tiempos de COVID 19.” Non: AA.VV. *Innovación desde el museo. Ensayos sobre emergencia cultural*. Valentzia: Consorci de Museus de la Comunitat Valenciana.

² Véase Polo Pujadas, Magda (2021). “La interdisciplinariedad y los museos en tiempos de COVID 19.” En: AA.VV. *Innovación desde el museo. Ensayos sobre emergencia cultural*. Valencia: Consorci de Museus de la Comunitat Valenciana.

museoei dagozkien eszenario nagusietan aldarrikatzen ari diren esperientzia bat da, publikoa agertzen zaigunetik —Jacques Rancièrek pentsatu bezala— publiko emantzipatu gisa, zeinak argi ikusten duen artearen inplikazioak bizimodu komunak eratzten dituela³. Esperientzia estetikoak objetuekiko distantzia jakin bat hartuta antzematen da eta berak ahalbidetzen digu ezinbestekoa dugun ulermen kognitiboa eta fenomenikoa.

Hori dela eta, gure proposamenak esperientzia poliestetikoak besarkatzen ditu, joera berri gisa oraingo museoetan. Esperientzia horietatik potentzial berri bat azaleratzen baita, bisitaria harrিতuta utzi ahal izango duena gure zentzumen guztien bitartez antzematen dugula ulertzetik abiatuta. Horrek, hain zuzen, erakusten denaren premia hedakor⁴ bati erantzuten dio.

ticipando del hecho artístico, es una experiencia que se está reclamando en los principales escenarios museísticos desde que el público se nos presenta —como lo ha concebido Jacques Rancière— como un público emancipado, que tiene la clara consciencia de que la implicación con el arte constituye formas de vida común³. La experiencia estética, que se aprecia adquiriendo una cierta distancia con los objetos, facilita una comprensión cognitiva y fenoménica que nos resulta imprescindible.

De ahí que nuestra propuesta abrace, como nueva tendencia en los museos actuales, las experiencias poliestéticas, las que descubren el nuevo potencial con el que se le puede sorprender a un visitante a partir de entender que percibimos a través de todos nuestros sentidos. Eso responde, claramente, a una necesidad expansiva⁴ de lo que se muestra.

1950eko hamarkadan AEBn izandako aurreneko ekintza performatiboei erreparatzen badiegu, esate baterako, *Theater Piece #1 (Untitled Event)* izeneko performancekoari —bertan parte hartu zuten Cage, Cunningham, Tudor, Olson, Richards eta Rauschenberge⁵—, orduan ulertuko dugu zertaz ari garen. Esperientzia poliestetikoak, bere hedadura osoan eta espektro zabal baten pean, sentsibilitatea hezten du dagozkion ñabardura guztietan, fenomenikoaren hedapen saihestezin bat proposatuz, eta proposamen poliestetiko hori irtenbide bat da publikoak hamarkadetan zehar bizitako nekeari azkena emateko. Honela, diziplinartekotasuna aspertzea gainditzeko metodo bezala proposatzen da eta gaur egungo ikerketa eta ekintza museologikorako pizgarri⁶.

Beraz, orain arte azaldutakotik abiatuta, gure proposamena da “museoa” berarrasmatzea. Museoa ez dugu ulertzen, Alfred Barrek bezala, ikusmenaren eta

Si nos remitimos a las primeras acciones performativas que tuvieron lugar en los años cincuenta en EUA, como, por ejemplo, la de la performance titulada *Theater Piece #1 (Untitled Event)* en la que participaron Cage, Cunningham, Tudor, Olson, Richards y Rauschenberg⁵ entenderemos a qué nos referimos. La experiencia poliestética educa, en toda su amplitud y bajo un amplio espectro, la sensibilidad en todos sus matices, proponiendo una expansión inevitable de lo fenoménico. Esta propuesta poliestética es una solución al cansancio vivido por el público desde hace décadas. Así pues, la interdisciplinariedad se propone como un método superador del tedio y un estímulo para la investigación y la acción museológicas de nuestros días⁶.

A raíz de lo expuesto, proponemos una reinención del “museo”. No entendemos, como hizo Alfred Barr, al museo como una experiencia retiniana y estética

³ Rancière, Jacques (2005). *Sobre políticas estéticas*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 20. or.

⁴ Hemen Rosalind Kraussen “arte hedatua” kontzeptu postmodernoaz ari gara.

³ Rancière, Jacques (2005). *Sobre políticas estéticas*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona, p. 20.

⁴ Aludimos aquí al concepto post-moderno de Rosalind Krauss de “arte expandido”.

⁵ XX. mendeko hasierako urteetan bizitako sinestesiak dagoeneko ireki zigun artea eta mundua beste modu batera “antzemateko” bide berri bat.

⁶ Russio, Waldis (1982). “Interdisciplinarity in Museology *MuWop*”. *Museological Working Papers*, 2. zk., ICOM International Committee for Museology, 26. or.

⁵ La sinestesia experimentada en los primeros años del siglo XX ya nos abrió una nueva manera de “percibir” el arte y el mundo de manera distinta.

⁶ Russio, Waldis (1982). “Interdisciplinarity in Museology *MuWop*”. *Museological Working Papers*, n. 2., ICOM International Committee for Museology, p. 26.

estetikaren aldi bereko esperientzia gisa, etengabeko elkarrizketa gisa baizik —objektuarekin eta subjektuarekin, gauzekin eta beren testuinguruarekin, egokia eta desegokia denarekin, agerikoa eta itxia denarekin—. Allan Kaprowk irizten zuen bezala, museoak “arte hila” hartzen du barnean, bizitzan zeharo murgildu beharko lukeenean edo, Robert Smithsonen ere proposatzen zuen bezala, “bizitzak” museoan bizi beharko lukeenean⁷. Hala, bide museistiko berri honek museoa birdefinitzea eskatzen du, denbora nagusiki elkarrekintza izango den lekutzat hartuta, lekua ezinbestean esperientzia izango den denboratzat hartuta. Museoak lagundu egin behar du bizi garen eta lehendik Edgar Morinek deskribatu zuen gizarte konplexu honen garapenean, gero eta publiko heterogeneoagoekin, interes eta egitura kognitibo desberdinekin, eta teknologia ezinbesteko tresnatzat barnean hartuta. Bisitariarekin sor daitezkeen loturek lurralde jakin batean eta komunitate jakin batean sartzen dute, non eten-

a la vez, sino como un diálogo constante con el objeto y el sujeto, con las cosas y su contexto, con lo propio y lo impropio, con lo obvio y lo obtuso. Como creía Allan Kaprow, el museo alberga “arte muerto” cuando debería volcarse a la vida o, como también proponía Robert Smithson, “la vida” debería habitar en el museo⁷. Este nuevo camino museístico comporta redefinir el museo entendiéndolo como espacio donde el tiempo es eminentemente interacción, como tiempo donde el espacio es irremediabilmente experiencia. El museo debe contribuir al desarrollo de la sociedad compleja en la que vivimos -y que ya describió Edgar Morin- con públicos cada vez más heterogéneos, con distintos intereses y estructuras cognitivas diversas, con la irrenunciable inclusión de la tecnología como instrumento. Los lazos que se pueden crear con el visitante lo incardinan en un territorio y en una comunidad en la que se generan aprendizajes continuos y modelos colaborativos

⁷ Hau gomendatzen dugu: *What is a Museum? A dialogue between Allan Kaprow and Robert Smithson*, 1967.

⁸ Falk, John H. eta Dierking, Lynn D. (2013). *The Museum Experience Revisited*. Walnut Creek: Left Coast Press.

⁷ Recomendamos *What is a Museum? A dialogue between Allan Kaprow and Robert Smithson* de 1967.

⁸ Falk, John H. y Dierking, Lynn D. (2013). *The Museum Experience Revisited*. Walnut Creek: Left Coast Press.

gabeko ikaskuntzak eta elkarlanerako eta partaidetzarako eredu estu eta sendoak sortzen diren. John Falkek eta Lynn Dierkingek dioten bezala, bisitariak “berak” sortutako esperientziak bereganatzen ditu⁸.

Pandemiak horri guztiari buruzko hausnarketak bat egiteko aukera eman du, subjektuak “besteekin”, “gauzeekin”, “inguruarekin” ezarritako harremanaren paradigma aldaketa bat ekarri duelako ez ezik, sumatzeko gai ere ez ginen txanponaren beste aldeak erakutsi ditzulako ere, eta horrela sortu dira diziplinarteko proposamen nazionalak eta internazionalak, oso interesgarriak, eta zenbait kontingentziak “biralizatuak” garai batean kokatzen jakin dutenak. Museoa ulertzeko modu berri honi elkartu zaie REINA SOFIA, MACA, MUSAC, IVAM, CGAC, CA2M, CCCB, CaixaForum... dinamika performatiboak eta elkarrizketakoak, tour birtuala, gamifikazioak... proposatuz. Maila internazionalan, horren beste adibide batzuk ditugu Louvre, Tate Modern, Städel Museum Frankfurt, l’Atelier des Lumières, IDEAL... eta beste asko ere.

Premia bizi baten ondorioz sortutako eki-

y participativos estrechos y sólidos. Tal como sostienen John Falk y Lynn Dierking, el visitante adquiere experiencias creadas “con él”⁸.

La pandemia ha posibilitado reflexionar sobre todo ello, no solo porque ha supuesto un cambio de paradigma de la relación del sujeto con los “otros”, con las “cosas”, con el “entorno”, sino también porque nos ha mostrado una cara de la moneda que ni tan solo éramos capaces de intuir, creando propuestas interdisciplinarias nacionales e internacionales muy interesantes que han sabido situarse en un tiempo “viralizado” por distintas contingencias. A esta nueva manera de entender el Museo se han sumado el REINA SOFIA, el MACA, el MUSAC, el IVAM, el CGAC, el CA2M, el CCCB, el CaixaForum... proponiendo dinámicas performativas y dialógicas, tours virtuales, gamificaciones, etc. A nivel internacional, lo han hecho también el Louvre, la Tate Modern, el Städel Museum Frankfurt, l’Atelier des Lumières, el IDEAL... y muchos más.

De entre estas iniciativas, que han surgido a causa de una necesidad imperante, queremos recalcar la destacada labor del

men horiez gain, azpimarratu nahi dugu Australiako Queensland Art Galleryk egin duen lan nabarmena; bere politika espositibo, museistiko eta museologikoan borondate interaktibo eta diziplinarteko bat erakutsita, lehen museoak bisitatzen ez zituen publiko gero eta gazteago batekin “engagement” bat lortu du, epe luzerako konpromiso bat hartuz, artisten eta beren publikoen arteko harremana estutuz, betiere baliabide berriak bilatuz eta “bisitariarentzako esperientzia” bat sortuz, bere filosofia instituzionalaren erdigunean kokatu duen esperientzia, alegia.

Hauxe da testu labur honetan trazatu nahi izan dugun bidea, non esperientzia interaktibo eta diziplinarteko guztiek aldi berean ezagutzak eta esperientziak antolatu eta proposatzeko kultura narratibo global bati erantzungo dioten, eta museoaren eta gizartearen arteko lotura, inolako zalantzarik gabe, indartuko duten. Izan ere, lotura horrek, diziplinak batu eta sormena suspertzen duenez gero, gizarte hobea go batera garamatza, ezbeharren aurrean “munduaren” ikuskera berriak aurkitzen dituen gizarte batera, jakin baitaki gizartea beti dagoela joan-etorrian eta, logikaz, museoak ere, gizartearen memoria bizia diren aldetik, halaxe daudela.

Queensland Art Gallery de Australia que, a partir de una voluntad interdisciplinaria e interactiva en su política expositiva, museística y museológica, ha conseguido el “engagement” con un público cada vez más joven que no visitaba los museos, adquiriendo un compromiso social a largo plazo, estrechando la relación de los artistas con su público, buscando siempre nuevos recursos y creando una “experiencia para el visitante” que lo ha colocado en el centro de su filosofía institucional.

Este es el sendero que hemos querido trazar en este breve texto, un sendero donde todas las experiencias interdisciplinarias e interactivas respondan a una cultura narrativa global que organiza y propone conocimientos y experiencias a la vez, que refuerzan, sin lugar a dudas, el ligamen entre el museo y la sociedad; un vínculo que, al sumar disciplinas y estimular la creatividad, nos conduce a una sociedad mejor, a una sociedad que, ante las adversidades, encuentra nuevas maneras de “ver el mundo” porque es consciente de que la sociedad está siempre en tránsito y, de manera lógica, los museos, como memoria viva de la misma, también lo están.

02

Museoa Metabertsorantz?

¿El museo hacia
el Metaverso?

Dr. Carles Sora-Domenjó

Zuzendaria. Director.
Centre de la Imatge i la Tecnologia Multimèdia.
Universitat Politècnica de Catalunya.
BarcelonaTech (UPC).

“Metabertso” terminoa Neal Stephenson-ek sortu zuen zientzia fikziozko 1992ko bere “Snow Crash” nobelan. Bertan, metabertsoak “hiri birtual” bat irudikatzen du, non pertsonak elkarren artean eta objektu digitalekin interakzioan aritu ahal izaten diren ingurune birtual partekatu batean. Stephenson-ek metabertsoaz zuen ikuspegia mundu birtual irekiei eta sozialei bidea eman zien aurrenetako bat izan zen. Hala, mundu horietan dena da posible, eta jokoan ez dago helburu jakinik: Interneten eta bideojokoen has-tapenetatik sakonetik aztertu izan den kontzeptua, Habitat, Habbo, Second Life edo berriki Minecraft bezalako funtsezko proiektuetan.

Gaur egun, “metabertso” terminoa modu zabalago batean erabiltzen da, eta ingurune sozial birtualei egiten die aipamen, bideojokoetan erabiltzen diren teknologia murgiltzaileen bidez —besteak beste errealitate birtualean eta errealitate areagotuan— esperimentatzen dien horiei. Esperientzia murgiltzaileagoak eta interaktiboagoak sortzeko modu bat da metabertsoa, eta aukera ematen die museo-erakunde publiko zabalago batengana iristeko, jolas egin, sozializatu eta bildumetan barrena sartzeko modu berriak eskainita.

El término “metaverso” fue acuñado por Neal Stephenson en su novela de ciencia ficción de 1992 “Snow Crash.” En la novela, el metaverso representa una “ciudad virtual” donde las personas pueden interactuar entre sí y con objetos digitales en un entorno virtual compartido. La visión de Stephenson del metaverso fue una de las primeras precursoras de los mundos virtuales abiertos y sociales donde todo es posible, y donde no hay un objetivo de juego particular, un concepto que ha sido extensamente explorado desde los inicios de Internet y los videojuegos en proyectos fundamentales como Habitat, Habbo, Second Life o más recientemente Minecraft.

En la actualidad, el término “metaverso” se utiliza de forma más amplia para referirse a los entornos sociales virtuales experimentados a través de tecnologías inmersivas utilizadas en los videojuegos, como la realidad virtual o la realidad aumentada. El metaverso se considera una forma de crear experiencias más inmersivas e interactivas que permiten a los museos llegar a un público más amplio ofreciendo nuevas formas de jugar, socializar y acceder a las colecciones.

Metabertsoak sustatzeko hedabideek eta sektore digitaleko enpresek gaur egun duten interesa web 3.0 teknologia berrietan oinarritzen da, esaterako ekonomia deszentralizatuaren teknologietan (*blockchain*). Teknologia horiek obra digitalak monetizatzeko aukera ematen dute NFTen (*Non-Fungible Tokens*) bidez, besteren artean Decentraland, The Sandbox eta Somnium Space metabertso berrietan obra digitalak salgai jarrita bildumak eskaintzeko.

Metabertsoa eboluzionatzen ari den kontzeptua da eta honela defini daiteke: komunikazio sozialeko online ingurune murgiltzaile espazial bat (web edo VR/XR), etengabea eta ekonomia digital berrian (kriptomonetak) eta Interneteko Web 3 teknologietan oinarritua.

Museoei dagokienez, metabertsoaren erabilera esperimentazio-fasean dago oraindik, eta oraingoz ez dago argi teknologia hori funtsezko faktorea izango ote den publiko berriak erakartzeko. Ondare digitalaren esparrurako metabertsoen lehen esperimentuetatik abiatuta, hainbat muga identifikatu ahal izan ditugu, besteak beste modeloen

El actual interés de los medios y las empresas del sector digital en la promoción de los metaversos está fundamentado por las nuevas tecnologías de la web 3.0 como las tecnologías de la economía descentralizada (*blockchain*) que permiten monetizar obras digitales a través de los NFT (*Non-Fungible Tokens*), existentes en nuevos metaversos como Decentraland, The Sandbox o Somnium Space que ofrecen colecciones con obras digitales a la venta.

El Metaverso, concepto en evolución, puede definirse como un entorno de comunicación social inmersivo online espacial (web o VR/XR), persistente y basado en la nueva economía digital (criptomonedas) y de tecnologías de internet Web 3.

El uso del metaverso por parte de los museos se encuentra aún en fase experimental, y todavía no está claro si esta tecnología se convertirá en un factor clave para la atracción de nuevos públicos. A partir de los primeros experimentos de metaversos para el ámbito del patrimonio digital hemos podido identificar diversas limitaciones como la falta de interoperabilidad de

eta datuen interoperabilitaterik eza haiek partekatu eta elkarrekin sortzeko, eta estandarrik eza haien definizioan, diseinuan eta arkitekturetan, edo haiek sortzeko konplexutasun teknologikoak, erakunde txikienei zail egiten zaizkienak.

Esperimentazioaren lehen etapa horrek —orokorrean terminoa bera eta biltzen duen ahalmena ulertu ezinarekin batera— nahasmen handia sortu du, enpresa teknologiko handi batzuk kontzeptuaren jabe egiten ari direlako marketina egiteko. Eta auzi horrek garrantzi handia du, zeren eta metabertsoen eztabaidaren erroan, kontuan hartuta inolako zalantzarik gabe berealdiko garrantzia izango dutela komunikazioaren arloan, eztabaida sortu baita teknologia horiek Interneten duten gobernantza-ereduari buruz ere. Alde batetik, metabertsoen eredu bat dago, euskarriztat dituztenak Interneteko teknologia, protokolo eta arkitektura berriak, Web 3tik deszentralizatuak, eta Internet berri bat eskaini beharko luketenak, ez hain zentralizatuak, tresna eta teknologia irekiak eskainita. Baina, aldi berean, enpresa teknologiko handiak kontzeptu eta merkatugune berri horren jabe egin nahian dabilta, me-

los modelos y datos para su compartición y co-creación, así como la falta de estándares en su definición, diseño y arquitecturas, o las complejidades tecnológicas para su creación, que los hacen difíciles para las instituciones más pequeñas.

Esta primera etapa de experimentación, además de venir acompañada por una falta de comprensión general del término y de sus potencialidades, ha generado una gran confusión debido a las apropiaciones que algunas grandes compañías tecnológicas están haciendo del concepto en términos de marketing. Esta cuestión es de gran importancia pues en la raíz del debate de los metaversos, que sin lugar a dudas será una tecnología de comunicación relevante, se está debatiendo también sobre el modelo de gobernanza de estas tecnologías en Internet. Por una parte, existe el modelo de los metaversos que se sustentan sobre las nuevas tecnologías, protocolos y arquitecturas de Internet descentralizadas de la Web 3, que deberían ofrecer un nuevo Internet menos centralizado, gracias a herramientas y tecnologías abiertas. Pero al mismo tiempo, existe un gran interés

tabertso itxien soluzioak eskainiz produktu eta zerbitzu moduan.

Egungo metabertsoen esperientziak bi eredu guztiz kontrajarriren pean eraikitzen ari dira: alde batetik, Interneteko teknologia ireki berrien bidez diseinatutako metabertsoak daude, eta, bestetik, korporazio handien jabetzako metabertso/produktuak.

Museo birtualak aspaldidanik egon dira, Minecraft, Google Arts & Culture, Second Life edo Roblox-ek hurbilketak eskaini dituzte erakusketa birtualetara, garai hartan publiko handiarentzat eskuragarri zeuden teknologiei esker. Erakusketa kultural birtualen, beren bertuteen eta porroten aurreko ibilbide horrek metabertso berrien benetako ahalmenari buruzko hausnarketa bat egitera eramane beharko gintuzkeen arren, hasierako proiektu horietako asko publikorik gabeko ingurune birtualak dira, Mozilla Hubsen eskainitako erakusketa birtual gehienak bezala...

Gaur egun, museoen metabertsoen inguruan bizitako esperientzien lehen bolada hau ez da oso interesgarria izan, nire ustez, ez baitute originaltasun handirik

de las grandes empresas tecnológicas por apropiarse de este nuevo concepto y espacio de mercado ofreciendo soluciones de metaversos cerrados en forma de productos y servicios.

Las experiencias de metaversos actuales se están construyendo bajo dos modelos totalmente opuestos: por un lado, hay los metaversos diseñados bajo las nuevas tecnologías abiertas de internet, y por el otro los metaversos-producto propiedad de grandes corporaciones.

Los museos virtuales han existido desde hace mucho tiempo, Minecraft, Google Arts & Culture, Second Life o Roblox han ofrecido diversas aproximaciones a las exposiciones virtuales gracias a las tecnologías que en ese momento eran accesibles para el gran público. Aunque este recorrido precedente de exposiciones culturales virtuales, de sus virtudes y sus fracasos, nos debería de hacer reflexionar sobre las potencialidades reales de los nuevos metaversos, muchos de estos primeros proyectos son entornos virtuales vacíos de público, como la gran mayoría de exposiciones virtuales ofrecidas en Mozilla Hubs...

erakutsi beren “senide” fisikoen eduki digitalizatua barnean hartzean, ekonomia digital berrien ikuspegitik. Zenbait proiektutan ikusi ahal izan dugu hori: Linzeko Carolinum-ena (Voxels), Londresko Serpentine Gallery-rena (Fortnite) besteak beste. Baita Internet 3.0ko museo “natiboen” proiektuetan ere: NFT Metavers Museum, VOMA, Museum of Crypto Art eta Museum Dezentral, esaterako.

Museo handien ertzetan bilatzen jarrita metabertso batzuk aurkituko ditugu, planteamendu berritzaileak egiten dituztenak, ingurunearen izaera zalantzan jarriz eta balio erantsia duten esperientziak eskainiz. Horren adibidea Finnish National Gallery-k 1900. urtean Parisen egindako munduko erakusketako Finlandiako pabiloiaren berreraikuntza digitalerako proiektua, Decentraland-en eskuragarri dagoena. Artiboaren balioak eta modu murgiltzailean bizitako gertakarien birsortze historikoak potentzial izugarria du. Estrategia bikain bat da bildumak espazio ezezagunetara hedatzeko. Ikus dezagun zer gertatuko den History Channel Italia prestatzen ari den Erromatar Koli-seoko metabertsoarekin...

En la actualidad, la primera oleada de experiencias de metaversos de museos ha sido poco interesante, desde mi punto de vista, al albergar de manera poco original contenido digitalizado de sus “hermanos” físicos, bajo la óptica de las nuevas economías digitales. Esto lo hemos podido ver en los proyectos de Carolinum de Linz en Voxels, Serpentine Gallery de Londres en Fortnite, entre otros, o incluso en los proyectos de museo “nativos” de la Internet 3.0 como NFT Metavers Museum, VOMA, el Museum of Crypto Art o el Museum Dezentral.

Si buscamos en los márgenes de los grandes museos podremos encontrar algunos metaversos que hacen planteamientos innovadores, cuestionando la naturaleza del medio y ofreciendo experiencias con valor añadido. Un ejemplo de esto es el proyecto de reconstrucción digital del pabellón Finés de la exposición mundial de 1900 de París, realizado por la Finnish National Gallery y accesible en Decentraland. El valor del archivo y la recreación histórica de acontecimientos vividos de manera inmersiva tiene un potencial incalculable. Es una gran estrategia

Museum of Digital Life-k beste norabide interesgarri bat ere aipatzen du, mundu birtualerako arte digital erreaktibo natiboaren edukia eskainiz eta museotik harantz doazen espazioak arakatzuz. Etorbizuneko metabertsoak ez luke museo baten hormak eduki behar, ezta artelanak ere zintzilikatuta. Espazioak berak proposamenaren parte izan beharko luke. Interesgarria litzateke, gainera, errealitatea hedatzeko teknologiak aztertzea (extended reality), espazio eta une “errealak” ingurune birtualekin konektatuz, esperientzia guztia espazio errealetik isolatutako ingurune birtual baten erdian ezarri behar. Eta, azkenik, metabertsoa aukera berri bat izan daiteke erakunde kulturalak birpentsatzeko, plataformatzat hartuta eraikuntza kolektiborako, erakusketa ez finituen baterako sorkuntzarako, eta interbentzio eta harremanetarako, publikoarekin, artista digitalekin eta beste erakunde batzuekin.

Nolabait ere, webak Interneten has-tapenetan sortzen zituen galdera, zalantza eta aukera berberak sortzen dizkie metabertsoak museoei. Huts egitea strategiaren parte izango da, ez, ordea, ez arriskatzea. Gainera,

para expandir las colecciones hacia espacios desconocidos. Veamos qué será del Metaverso del Coliseo Romano que está preparando History Channel Italia...

Museum of Digital Life apunta también otra dirección interesante, ofreciendo contenido de arte digital reactivo nativo para el mundo virtual y explorando espacios que van más allá del museo. El metaverso del futuro no debería de tener las parades de un museo, ni obras colgando. El mismo espacio debería de ser parte de la propuesta. Sería también interesante explorar las tecnologías de extensión de la realidad (extended reality), conectando espacios y momentos “reales” con entornos virtuales, en lugar de centralizar toda la experiencia en el entorno virtual aislado del real. Y finalmente, el metaverso puede representar una nueva oportunidad para repensar las instituciones culturales, si lo entendemos como una plataforma de construcción colectiva, de co-creación de exposiciones no finitas, de intervenciones y relaciones con el público, con los artistas digitales y con otras instituciones.

oraingoan museoek abantaila handi bat dute abiapuntu gisa, bideojokoe-tan inspiratu baitaitezke, 50 urtetik gorako ibilbidearekin produktu kultura-letan. Bideojokoen mundua aztertzeak eta hartzeak izan beharko luke inguru-ne digitalaz jabetu nahi duen erakunde kultural ororen obsesioa.

En cierto modo, el metaverso genera a los museos las mismas preguntas, dudas y posibilidades que generaba la web en los inicios de Internet. Equivocarse será parte de la estrategia, pero no arriesgarse no debería de serlo. Además, esta vez los museos tienen una gran ventaja como punto de partida, al poder inspirarse en los videojuegos, con una trayectoria de más de 50 años de productos culturales. Analizar y adoptar el mundo de los videojuegos debería de ser la obsesión de toda institución cultural que quiere apropiarse del medio digital.

03

Wunderkammeretik metabertsora. Museoa eta Internet trantsizioko paradigma gisa.

*De la wunderkammer
al metaverso. Museo e
Internet como paradigmas
en transición.*

*Clara Harguindey Cáceres &
Daniel Pecharromán Calvo*

Desmusea

Trantsizioko museoak kapsulazioa egoia da museo garaikideak orain bizi duen egoera adierazteko. ICOMek berriki aldatu du *museo* definizioa, eta horrek agerian uzten du erakundea nola dabilen moldatu nahian bizi den mundu postmodernoarean konplexutasunera, haren eskakizunei ezin baitie beti erantzun. Kultura digitaleko bitartekaritzan diharduen kolektibo bat garenez —artearen eta hezkuntzaren elkargunean kokatzen da gure praktika— bertualtasunak adierazten duen atalase horretan egiten dugun lan. Teknologia, eta zehatzago Internetek, aukera ematen digu etortzekoa den museo horren inguruan bai espekulatzeko bai bere eraikuntzan parte izateko. Hain zuzen ere, pentsamendu digitala da museo bizitzen ari den eredu-aldaketaren eragile nagusietako bat. Bitarteko horiek erabiliz, elkarrizketarako testuinguruak sor ditzakegu erakundearen eta publikoen artean, eta historikoki kontserbaziora bideratutako erakunde hori eraldatu, *konbertsazioa* erdigunean jartzen duen espazio bat izan dadin: apelatuak eta ordezkatuak senti gaitzkeen leku bat, ICOMek aipatzen duen museo irisgarri eta inklusibo hori eratu ahal izango dugun lekua.

Museos en tránsito supone una buena encapsulación de la coyuntura que atraviesa el *museo* contemporáneo. El reciente cambio de la definición de museo por parte del ICOM revela el modo en que la institución trata de adaptarse a la complejidad del mundo posmoderno que habita, y a cuyas demandas no siempre tiene la capacidad de dar respuesta. Como colectivo de mediación cultural digital cuya práctica se ubica en la intersección entre arte y educación, nuestro trabajo opera en la naturaleza liminal de la virtualidad. La tecnología, y más específicamente Internet, nos permite alternativamente especular y formar parte de la construcción de este museo por venir. Es precisamente el pensamiento digital uno de los principales artífices del cambio de modelo que está viviendo el museo. Haciendo uso de estos medios, podemos generar contextos dialógicos entre institución y públicos, transformando una institución históricamente dirigida a la conservación, en un espacio que pone en el centro la *conversación*: lugares propios donde podemos sentirnos apeladas y representadas, donde podemos constituir ese museo accesible e inclusivo del que habla el ICOM.

Gure garaikidetasun hiperkonektatuak eskaintzen dituen aukerak —oraingok eta gerokok— sakonetik zeharkatzen dute museo berri honen eraikuntza, eta horregatik interesatzen zaigu testuinguru honetan konfiguratzeko elkarrizketa sekuentzial bat, *museo* paradigmaren eta *Internet* paradigmaren eboluzioa lotuko dituen publikoek betetzen duten zereginaren ikuspuntutik, bisitari zein erabiltzaile izan. Horrela, oraingo erakundeak aurre egin behar dien erronkak birpentsatu ahal izango ditugu, eta museoari dagozkion poetikak eta politikak bertualtasun horretan zer egin dezaketen galdetu.

Museoaren sorburuari erreparatzen badiogu, bere aurrenetako adibide bat *wunderkammer* edo mirarien kamera errenazentista dela esan daiteke: hantitasun pribatua zerien gelak, objektuek gainezka egiten zutenak, eta behatu bai baina ezin zirenak interpelatu. Pieza artistikoak, bitxikeria zientifikoak, materialtasun aparteko objektuak, animalia disekatuak, antigoaleko gauzak, eta beste elementu batzuk, nobleak eta monarkek bildu eta apaletan kokatzen zituztenak beren kapital sinbolikoa, hau da, botere politiko, ekonomiko edo

Al estar la construcción de este nuevo museo profundamente atravesada por las posibilidades (presentes y futuras) que ofrece nuestra contemporaneidad hiperconectada, nos interesa en este texto configurar un diálogo secuencial que relacione la evolución del paradigma *museo* y el paradigma *Internet* desde el ángulo del papel de los públicos, sean visitantes o usuarias. De esta manera, podemos repensar los retos a los que la institución del presente se enfrenta, preguntándonos lo que pueden las poéticas y políticas propias del museo en la virtualidad.

Si nos remitimos a los orígenes del museo, podemos referir como uno de sus primeros ejemplos la *wunderkammer* o cámara de maravillas renacentista: estancias de magnificencia privada colmadas de objetos que se podían mirar, pero hacia los que no había interpelación. Piezas artísticas, curiosidades científicas, objetos de materialidad excepcional, animales disecados, antigüedades, y otros elementos que los nobles y monarcas coleccionaban y situaban en los estantes para demostrar y legitimar su capital simbólico, es decir, su poder político, económico o

erlijiosoa, frogatu eta legitimatzeko. Kamera horiek gutxi batzuek bisitatzen zituzten —edo inork ere ez— eta, hortaz, bildumagilearen subjektibotasuna zen bildumak onartzen zuen kontakizun bakarra.

Bestalde, Web 1.0 deitzen den horizan da Interneten sorburuan den paradigma. Erabiltzaileen ikuspegitik eta webean betetzen dugun roletik, etapa horrek edukia irakurtzeko edo kontsumitzeko gaitasunarekin —gaitasun eksklusiboarekin— zuen zerikusia. Sortzaile edo garatzaile urriek norabide bakarrean partekatzen zuten online informazioa. Erabiltzaile gisa eduki espezifikotan sar gintezke eta eduki horiek kontsumitu eta partekatzeko ahalmena genuen: hasierako museo primitibo horretan bezala, interpelazio oso mugatua zen. Urte hauetan teknologia berriekin lotutako praktika artistikoek —net-art bezalako mugimenduek— hausnarketa bat egiten jardun dute interfazearen eta bera manipulatzeke duten gaitasunaren inguruan; museoetan bezala, bisitariarentzako rol aktiboago bat eskatuz.

religioso. Los visitantes a estas cámaras eran escasos o inexistentes, con lo cual la colección no admitía más relato que la subjetividad del coleccionista.

Por otra parte, el paradigma origen de Internet ha sido el denominado Web 1.0. Desde la perspectiva de las usuarias y nuestro rol en la web, esta etapa tenía que ver con la capacidad (exclusiva) de leer o consumir el contenido. Las escasas creadoras o desarrolladoras compartían información en línea de forma unidireccional. Como usuarias accedíamos a contenido específico y teníamos el poder de consumirlo y compartirlo: al igual que en el museo primitivo, la interpelación era muy limitada. En estos años la práctica artística asociada a las nuevas tecnologías (movimientos como el net-art) reflexionaban en torno a la interfaz y su capacidad para manipularla; reclamando, como en los museos, un papel más activo para los visitantes.

Más adelante se nos presenta un segundo panorama: el museo romántico del XIX, cuyo modelo hemos heredado hasta nuestra contemporaneidad. Una institución nacida de un sustrato

Aurrerago, bigarren ikuspegi bat azaltzen zaigu: XIX. mendeko museo erromantikoa, herentzian jaso duguna gaurdaino. Substratu ilustratu batetik sortutako erakundea da bera, kulturaren demokratizazio handiago bat defendatzen duena, eta hala lortu du klase pribilegiatuek jabetzan zituzten arte-bilduma batzuk nazionalizatzea, besteak beste, Louvre eta Prado museokoak. Eta, hain zuzen ere, orduan gehitzen zaio begirada publikoa: begirada oraindik oso mugatua, elitismo intelektualak markatua. Urteetan zehar saialdiak egin dira eredu horrek zekartzan hutsegite eta absentzia sozialak gainditzeko, museologia berriak, pentsamendu kritikoak edo hurbilketa feministak eta dekolonialak egin dituzten ahaleginen bitartez. Dena den, irrika zeharo demokratiko horren konfigurazioak erronkak eta kontraesanak izaten jarraitzen du.

Museoan bezala, webaren eboluzioak parte hartze handiagoko rol bat hartzea ahalbidetu die erabiltzaileei. Oraingo paradigma honela definitzen dute komunitate teknologikoek, besteak beste Web 2.0k: plataformen edo sare sozialen aroa, komunitateari geuk sortutako edukiak irakurtzeko eta idazteko

ilustrado que aboga por una mayor democratización de la cultura, llevando a nacionalizar algunas colecciones artísticas que pertenecían a las clases privilegiadas, como las del Louvre o el Prado. Es entonces cuando se incorpora la mirada pública: una mirada todavía muy acotada, marcada por el elitismo intelectual. Las faltas y ausencias sociales que este modelo comportaba se han tratado de ir salvando a lo largo de los años a través de los empeños de la nueva museología, del pensamiento crítico o el abordaje feminista y decolonial, aunque la configuración de este anhelo plenamente democrático sigue presentando retos y contradicciones.

Como en el museo, la evolución de la web ha permitido a las usuarias tomar un rol más participativo. El paradigma presente es definido por las comunidades tecnológicas como la Web 2.0: la era de las plataformas o las redes sociales, que otorga a la comunidad la capacidad de leer y escribir nuestros propios contenidos. La ensayista Remedios Zafra en su obra *(h)adas. Mujeres que crean, programan, prosumentes, teclean (2016)* define este cambio como el paso de ser “consumidor”

gaitasuna ematen diona. Remedios Zafra saiakeragileak, *(h)adas. Mujeres que crean, programan, prosumen, te-clean* (2016) bere obran, honela definitzen du aldaketa hori: “kontsumitzaile” izatetik “prosumitzaile” (“produzitu” eta “kontsumitu” terminoak batzetik osatutako akronimoa) izatera emandako urratsa. Izan ere, kontsumitzen ditugun eduki gehienak beste erabiltzaile batzuek plataformen barruan sortzen dituztenak dira. Hemen, arazo nagusia hau da, informazio horren guztiaren kontrola eta jabetza. Interneteko errealitate postpolitiko eta aske bati buruzko 1990eko hamarkadako ziberfeministen utopien aurrean, ekosistema pribatizatu batekin egiten dugu topo, eta bertan enpresa gutxi batzuek bakarrik eskuratu dituzte komunitatea sortzen ari den edukiaren boterea eta onurak. Museo garaikidean bezala, barne-politikek edukiak demokratizatzea dute helburu, baina oraindik ere gutxiengo ahaldun bat da botere sinbolikoaren jabe.

Bi ereduak, museoarena zein webarena, trantsizioko testuinguruak dira. Museo metamorfosis bat bizitzen ari da museo erromantikoaren eta itxuratzen hasitako balizko museo baten artean.

a “prosumidor” (acrónimo formado por la unión de los términos “producir” y “consumir”). De hecho, la mayor parte de los contenidos que consumimos son los que otras usuarias crean dentro de las plataformas. El principal problema aquí, es el control y la propiedad de toda esa información. Frente a las utopías de las ciberfeministas de los 90 sobre una realidad pospolítica y libre en Internet, encontramos un ecosistema privatizado donde pocas empresas ostentan el poder y los beneficios del contenido que la comunidad está creando. Como en el museo contemporáneo, las políticas internas aspiran a una mayor democratización de los contenidos, pero el poder simbólico sigue ostentado por una minoría poderosa.

Ambos modelos, tanto el del museo como el de la web, suponen contextos en transición. El museo vive una metamorfosis entre el museo romántico y un museo futurible que comienza a tomar forma. La condición contemporánea entre lo digital y lo físico, el paso de la visión a la navegación, la pérdida del privilegio de circulación de la imagen ante la hegemonía de Internet, son algunas de las particularidades de

Digitalaren eta fisikoaren arteko izate garaikidea, ikustetik nabigatzera emandako pausoa, Interneten nagusitasunaren aurrean irudiak zirkulatzeko pribilegioaren galera, gure garaiko berezitasunetako batzuk dira, eta izaera berri bat definitzen ari dira etorkizuneko museo honetarako. Bestalde, sare garaikidearen bilakaera tekniko eta kontzeptualari esker, web paradigma berri batera hurbiltzen ari gara: 3.0 weba, kontzeptu gero eta indartsuagoak biltzen dituen, metabertsoa, NFTak edo kriptomonetak besteak beste. Orain, Internet oligopolio teknologiko handien inguruan antolatzen den garai honetan, ekosistema honek sistema berdinzaleago eta askeago bat ezarri nahi du, eta helburu horrekin ematen dizkie erabiltzaileei irakurketaren, idazketaren eta jabetzaren ahalmenak, sare deszentralizatueta oinarrituta.

Museo garaikideak bizi duen errealitate kontzeptual konplexuak joko eta esperimentazio eremu bat aurki lezake 3.0 webean, oinarri tekniko eta instituzional berrietatik birpentsatzeko aukera emango diona. Museoari espoliaziotik eta hegemoniaren legitimaziotik konfiguratu izana leporatzen zaio behin eta

nuestro tiempo que están definiendo una nueva naturaleza para este museo futuro. Por otra parte, gracias a la evolución técnica y conceptual de la red contemporánea, nos acercamos a un nuevo paradigma web: la web 3.0, que acoge conceptos cada vez más vigentes como el metaverso, los NFT o las criptomonedas. En un presente donde Internet se organiza en torno a grandes oligopolios tecnológicos, este ecosistema pretende establecer un sistema más igualitario y libre otorgando a las usuarias los poderes de lectura, escritura y propiedad, basado en redes descentralizadas.

La compleja realidad conceptual que atraviesa el museo contemporáneo podría encontrar en la web 3.0 un campo de juegos y experimentación que le permita repensarse desde nuevas bases técnicas e institucionales. Al museo se le reclama haber sido configurado desde el expolio y la legitimación de lo hegemónico: la web 3.0, en tanto ecosistema descentralizado, podría ser entonces un entorno adecuado para la construcción de un museo articulado a través de un modelo de gestión comunitaria, la producción

berriz: 3.0 weba, beraz, ekosistema deszentralizatu den aldetik, ingurune egoki bat izan liteke kudeaketa-eredu komunitario baten bidez museo artikulatu bat eraikitzeko, erakusketen arloan narratiba berriak ekoizteko, eta pentsamendu kritikoa eta interkonektatu bat garatzeko.

Birtualtasunean, informazioa hipereskatetik eta ez linealtasunetik egituratuta dagoela kontuan hartuta, museoak —eta kultur bitartekaritzak— ekosistema berri honetan izango duen zeregina hauxe izango da: koherentzia sortzea, elementu etenen eta erlazio hipertestuaren bitartez; iragana balioan jartzea, berrirakurketa sortzaile eta kritikoen bitartez, eta etorkizunari begiratuta ekintza berritzaileak eta iraunkorrak formulatuta; bildumaren gaineko begiradak zabaltzea, lan birtual eta irmo baten bitartez. Aldi berean, *online* museo hau ez da soilik birtualtasunaren aukeren aurrean gogo biziz taxutu behar; horrez gain, bere problematiken autokontzientziaz ere definitu beharrean da; diseinu kritikoa baten pean, teknologiaren alderdirik kaltegarrienak arazotzat joko dituenak, eta bere erabilera ezagutzaren benetako

de nuevas narrativas expositivas, y el desarrollo de un pensamiento crítico e interconectado.

Si en la virtualidad la información está estructurada desde el hipervínculo y la no-linealidad, el papel del museo (y de la mediadora cultural) en este nuevo ecosistema será el de crear coherencia a través de elementos discontinuos y relaciones hipertextuales; de poner en valor el pasado a través de relecturas creativas y críticas que miren al futuro formulando acciones innovadoras y sostenibles; de ampliar las miradas sobre la colección por medio de un trabajo virtual situado. Al mismo tiempo, este museo *online* no sólo debe configurarse desde el entusiasmo ante las posibilidades de lo virtual, sino que también ha de definirse desde la autoconsciencia de sus problemáticas; bajo un diseño crítico que problematice los aspectos más perniciosos de la tecnología; y que sepa conducir su uso hacia la transmisión genuina de conocimiento, alejándose del mero ejercicio cosmético que sitúa al museo en un aparente espejismo de modernidad.

En la anticipación de este museo reflexivo, educativo y disfrutable (volviendo

transmisora bideratzen jakingo duena, museoak itxurazko modernitate irudipen batean kokatzen duen ariketa kosmetiko hutsetik aldentuta.

Halako museo burutsu, hezitzaile eta gozagarri baten aurrerapen honetan —berriro ere ICOMen definizio berri horretara itzulita— hauxe geratzen zaigu, gure nabigatzailearen erlaintzetatik pasatzea eta etenik ez duen zirrikitan museo horrentzat zabaltzen ari diren aukerak irudikatzea.

de nuevo a esa nueva definición del ICOM) nos queda pasear por las pestañas de nuestro navegador, imaginando las posibilidades que ya se están abriendo para ese museo en el constante intersticio.

Har-eman

Oskia Ugarte

Zuzendaria. Huarte Arte Garaikidearen Zentroa.
Directora. Centro de Arte Contemporáneo de Huarte.

04

